

## **KEN ZAZPI**

Jon Mikel Arronategik eta Eñaut Elorrietak sortu zuten taldea 1996ko udazkenean Gernikan (Bizkaia). Biak herriko bertze bi talde ezagunetan aritzen ziren orduan: Exkixu eta Lugarri.

2000. urte arte ez ziren lanean serio hasi. Urte horretan, gaur egun taldea osatzen duten taldekideak elkartu eta maketa bat grabatu zuten Muxikan, Jose Alberto Batizen laguntzarekin. Grabaketa hura Iñaki Uohoren etxean egin zuten.

Lehendabiziko lana 2001ean kaleratu zuten, "Atzo da bihar"(Gor), eta arrakasta handia izan zen. Guztira 20.000 ale baino gehiago saldu ziren eta taldea Euskal Herrian osoan ezaguna egin zen.

2005ean zuzeneko disko akustiko bat grabatu zuten Andoaingo Garate estudioan.

Donostiako Victoria Eugenia antzokian emanu zuten 2009ko ilbeltzaren 3an, eta kontzertu hura grabatu egin zuten "KenZazpi Urte Zuzenean" diskoan argitaratzeko.

Taldekideak hauk dira: Igor Artzanegi (baxua), Beñat Serna (gitarra), Iñaki Zabaleta (teklatuak) eta Jon Fresko (bateria).

Kantu ospetsuak: Zapalduen olerkia, Itsasoa gara...

Disko hauek atera zituzten: Atzo da bihar, Aekantuz (askoren artean), Bidean, Gelditu denbora, Araba euskaraz 2005 (askoren artean, Argiak, Askatasun oihua...

Kanta: itsasoa gara(ken zazpi)

<https://www.youtube.com/watch?v=DYTcedtLF00>

## LETRA

Begiratu atzean

Ortizimugak sutan

Gure begien zerutan.

Begiratu maitea

Amildegia ertzak

Biziak hilak

Ametsak.

Ez bilatu gauean, izar hura

Zure begietan piztu da.

Ta ez galdetu inoiz zer galdu genuen

Negar egin genuenean

Malko haiei esker

Orain itsasoa gara.

Orain hemen gaudela

Bidegurutzean

Utz ditzagun beldurrak

Atzean.

Ez gara izan onenak

Beharbaka

Baina gure bizitza

Izan da.

Mendetako kanta erditu da

Gure ordua heldu da.

Eta ez galdetu inoiz zer galdu genuen

Negar egin genuenean

Malko haiei esker

Orain itsasoa gara.

Eta ez galdetu inoiz zer galdu genuen  
Gure ametsaren bidean  
Izan garelako  
Oraindik ere bagara  
Eta beti izango gara.  
Eta ez galdetu inoiz zer galdu genuen  
Negar egin genuenean  
Malko haiei esker  
Orain itsasoa gara.

**Egileak: Olaia Otxandorena eta Xabat Maritxalar**